



2010eko ERAKUSKETAK



ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Tituloa: ***Robert Rauschenberg: Gluts***

Komisarioak: Susan Davidson eta David White

Egoitzak: Peggy Guggenheim Collection, Venezia, Museum Tinguely, Basilea, eta Guggenheim Bilbao Museoa

Data: 2010eko otsailaren 13tik irailaren 12ra arte

Aretoak: 301, 302, 303 eta 304



Robert Rauschenberg artista estatubatuar handiaren metalezko muntaia zoragarriak

Robert Rauschenberg 2008ko maiatzaren 12an hil zenetik ia bi urte igaro direla, Guggenheim Bilbao Museoa artistari handi honi hila osteko omenaldia eskaintzen dio: 2010eko otsailaren 13tik irailaren 12ra *Robert Rauschenberg: Gluts* erakusketa izango da Museoan. Bertan hirurogei lan inguru ikusgai izango dira; metalezko lan horiek ez dira oso ezagunak eta Estate of Robert Rauschenberg-i eta hainbat herrialdetako erakunde eta bilduma pribatuen maileguei esker daude erakusketan.

Robert Rauschenbergek arreta eskaini zien metalek zituzten ikusizko ezaugarriak. Aurretik, baina, beste alor batzuk landu zituen: 1950eko hamarkadan bi dimentsioko pintura eta eskultura uztartu zituen *Combines* lanetan; 1960ko hamarkadan artearen eta teknologiaren arteko lankidetzaz aztertu zuen, eta 1970eko hamarkadan zuntz naturalak landu zituen: papera, kartoia eta ehunak. Azkenik, 1986an, Rauschenberg aurkitutako metalezko objektuak muntatzen hasi zen eta bere argazkiak inprimatu zituen aluminioan, letoian edo kobreakin. Hala islatu nahi zuen hausnarketari, eskulturari, gaiei eta testurari dagokienez, metalak zer aukera eskaintzen zizkion. Artistak 1995 arte tarteka jorratu zuen metala.

1998ko azaroan artista estatubatuar honen atzera begirako zabalena izan zen Guggenheim Bilbao Museoan. Hura nazioarteko arte-programazioan gailendu zen ikusgai zeuden lanen kalitatea eta kopurua zirela-eta, eta agerian utzi zuen formatuen edertasuna inauguratu berri ziren Frank Gehryren guneeetan —hala bien diskurtsoen eta diziplinen arteko elkartruke interesgarria izan zen—. Hamaika urteren buruan, Guggenheim Bilbao Museoak atzera begirako garrantzitsu horrek irekitako zikloa itxiko du *Gluts* saila —artistak hil baino lehen egin zuen azkena— ikusgai jartzean.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOAK

Titulua: *Anish Kapoor*
Komisarioak: Alexandra Munroe eta Adrian Locke
Egoitzak: Royal Academy of Arts, Londres, eta Guggenheim Bilbao Museoa
Data: 2010eko martxoaren 16tik otsailaren 12ra arte
Aretoak: Bigarren solairukoak

Indiako artista Anish Kapoorri eskaintzen zaion lehen atzera begirakoa Espainian

Guggenheim Bilbao Museoa Anish Kapoorri (Bombay, 1954), nazioartean eragin handia duen artistari, atzera begirako bat eskainiko dio. Erakusketa hau Londresko Royal Academy of Arts-en ireki zen 2009ko udazkenean eta arrakasta handia izan zuen. Espainian lehenbiziz egingo da artista horren hain erakusketa handia.



Erakusketa Londresko Royal Academy of Arts-ek eta Guggenheim Bilbao Museoa antolatu dute eta Museoaren bigarren solairua, osorik, hartuko du. Bertan Anish Kapoorren sormen-unibertsoa ikertuko da, hauetaz baliatuz: artistak eskultura-forma abstraktuen, bolumenaren, eskalaren, kolorearen eta materialtasunaren inguruan egindako azterketak. Sormen-prozesua eta materia funtsezkoak dira artistaren lanean, haren hitzetan: “*Materialak beti eramaten gaitu materiagabetasunera*”.

Guggenheim Bilbao Museoa Kapoorrek 1979tik aurrera sortu dituen hainbat sail ikusgarri izango dira. Horietan ukitze edo oso islatzaileak diren elementuak erabili ditu: pigmentu puruak eta distiratsuak, odol koloreko argizariak, pintatutako beira-zuntza, harria, leundutako altzairu herdoilgaitza eta oraintsu erabiltzen hasi den zementua. Eskultura eta instalazio monumentalek Frank Gehryren gune makurretan dimentsio berria hartuko dute.

Areto bakoitzean sail bat —pigmentu lanak, hutsaren gaineko lanak, leundutako altzairu herdoilgaitzezko obrak eta zementuzko egitura entropikoak— edo eskala handiko instalazio bat egongo da; hala, lan horietan murgiltzea berezia izango da bisitariarentzat. Horrela, material eta forma ugari horien bidez adierazten du Kapoorrek “berez sortzen” diren lanetan, hots, egilearen arrastorik ez duten eta alde zurratik ez duten objektuetan interesa.

Kontzeptu horren adibide bikaina da orain gutxi *Tiroak txokoan* (*Shooting into the Corner*, 2008–09), instalazio ikusgarria; horretan laguntzaile batek kanoi batekin su egiten du eta areto guztitik argizari gorrizko bolak botatzen ditu: Museoa leherketa bortitzen eta hodei dramatikoaren txoko bihurtuko da.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: *Henri Rousseau*
Komisarioa: Susan Davidson eta Philippe Büttner
Egoitzak: Fondation Beyeler, Basilea, eta Guggenheim Bilbao Museoa
Data: 2010eko maiatzaren 25etik irailaren 12ra arte
Aretoak: 305, 306 eta 307




Arte modernoaren aitzindari baten ikusizko mundua iraultzailea

Henri Rousseau orain ehun urte hil zen eta urteurren honetan Guggenheim Bilbao Museoa, artista frantses horri eskaintzen dio erakusketa bat, arte modernoaren aitzindari gisa izan zuen gailentasuna azpimarratzeko. Haren garrantzia giro batzuetan oraindik gordetzen den klixetik haratago doa, hots, ez zen artista “*naïf*” eta zertxobait bitxia” soilik izan. Henri Rousseau bere garaiko pintura irauli zuen ikusizko mundua eraikitzeko modu berritzaileak erabili baitzituen eta modu horiek garaiko artista gazteei eragin baitzieten.

Henri Rousseau erakusketa Guggenheim Bilbao Museoa antolatu du Fondation Beyeler-ekin lakidetzan eta bertan artista frantsesak landu zituen gai ugariak aurkeztuko dira: ezagun-ezagunak diren “oihanen pinturak”, bere azkenaldiaren ezaugarri, Parisko eta aldirietako ikuspegiak, figurak, erretratuak, alegoriak eta ohitura-eszenak. Askotariko gai horiek modu orijinalean eta, garai hartan, ezohikoan jorratu zituen. Haren konposaketa estilo berezia “moztu eta itsatsi” metodoa erabiltzean zetzan; hala, aurretik zeuden osagai independenteak uztartzen zituen. Konposatze prozesu hori *margotutako collagetzat* har daiteke eta abangoardiako hainbat artistek — Picassok, Léger-ek eta Max Ernst-ek, esaterako— iturri izan zuten.

Erakusketa gaiaren eta sortze-dataren arabera itxuratu da. Elkarren ondoan aurkeztuko dira pinturak Frantziako artista honen estetikaren gakoak nabarmentzeko: irudi bakarrean zibilizazio eta natura alderdiak batzen zituen, bai pintura exotikoetan baita Frantziako lekuak jasotzen dutenetan ere; irudien —animaliak, landareak eta beste osagai batzuk— antolaera ia simetrikoa eta hieratikoa zela gai oso ezberdineko lanetan ikus daiteke. Bi pinturen arteko alderatze horiek agerian uzten dituzte Rousseuren lanen alderdi surrealistikak, eta, aldi berean, oso bestelakoak diruditen bi lanen arteko batasun kontzeptuala ulertzen laguntzen diete bisitariei, ezberdina den bakarra gaia den arren.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Städel Museum-en Holandako eta Flandesko pinturaren Urrezko Aroa***
Komisarioa: Jochen Sander
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa
Data: 2010eko urriaren 8tik 2011ko otsailera arte
Aretoak: Hirugarren solairukoak

Holandako eta Flandesko pinturaren Urrezko Aroa jasotzen duen Europako bilduma nagusienetako baten maisulanak

Urriean Guggenheim Bilbao Museoa *Städel Museum-en Holandako eta Flandesko pinturaren Urrezko Aroa* aurkeztuko du, Frankfurtetako Städel Museum-en XVII. mendeko Holandako eta Flandesko mihiseen aukeraketa bikaina. Erakusketa hau aukera paregabea izango da garai hartako ondorengo artisten maisulanak ikusteko: Jan Vermeer, Rembrandt, Gerrit Dou, Frans Hals, Peter Paul Rubens, Brueghel aita-emeak, Jordaens, Gerard ter Borch, Jan van Goyen, Salomon van Ruysdael, Jan Steen, Aert van der Neer, Jan Davidszoon de Heem, Abraham Mignon eta Adriaen Brouwer.




Museoaren hirugarren solairuan maisu horien ehun bat lan izango dira ikusgai; hala, artean nahiz historian aparteko garrantzia duen garai baten azterketa sakona eskainiko da.

Urrezko Aroak pintura-genero berrien garapena eta beste klasiko batzuek berriro zehaztea sustatu zuen. Rembrandt-en, Rubens-en eta Jan Steen-en narrazio-pintura historikoek osatzen dute erakusketa honen lehen atala. XVII. mendeko Holandako eta Flandesko paisaia-pinturaren adierazle izango dira Bilboko erakusketan Jan van Goyen, Jacob van Ruisdael eta Salomon van Ruysdael. Erretratuaren adibide bikainak izango dira

Rembrandt-en eta Frans Hals-en lanak, Dirck van Baburen-en, Johannes Verspronck-en eta Nicolaes Maes-en emakumeen erretratuak, eta Cornelis de Vos-ek eta Pieter Soutman-ek haurrei egindako erretratuak. Azkenik, natura hilek osatuko dute erakusketa hau Jacob van Es-en, Jan Weenix-en, Jan Davidszoon de Heem-en eta Rachel Ruysch-en lanekin.

Frankfurtoko Städel Museum-ek berrehun urte eman ditu Holandako eta Flandesko pinturaren Urrezko Aroa islatzen duen Europako bilduma onenetako bat erakusten. Bilduma honen jatorria Johann Friedich Städel Frankfurtoko merkatari eta finantzariaren bilduman dago. Hori Städel Museum-en funtsetan (1816an sortu zen) sartu zen, XIX. eta XX. mende hasieran aberastu zen, eta egun Europako gailenetako bat da.

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak***
Komisarioa: Petra Joos
Data: 2010eko otsailaren 16tik 2011ko urtarrilaren 16ra
Aretoak: 103A eta 105



Guggenheim Bilbao Bildumaren inguruan lehenengo erakusketa

Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak datozen hiru urteetan izango den zikloaren lehena da eta helburu du Museoaren Bilduma osatzen duten artelan garrantzitsuenak publikoari erakustea. Egun 63 artisten 103 lanek osatzen dute Bilduma eta erakusketa hauetan horien testuingurua eta elkarren arteko harremanak aztertu eta azalduko dira.

Guggenheim Bilbao Museoaren eskuratze-programak arreta jartzen dio XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, egundaino, sortutako lanak biltzeari. Hala, Solomon R. Guggenheim Foundation-en funtsak osatu eta berezko izaera izango du Guggenheim Bilbao Bildumak. Eskuratze-ildoan artean daude II. Mundu Gerra osteko eta egungo artisten maisulanak eta lan nabariak biltzea, Frank Gehryren eraikinaren gunetarako bereziki sortu diren lanak aginduz eskatzea, zenbait artisten ibilbidea sakon aztertzea haien lan-talde esanguratsuei esker, bai eta euskal eta espainiar artistei arreta berezia eskaintzea ere. Hala, lehen erakusketa honetan Museoaren ildo nagusiak aztertuko dira 1950eko, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako hogeitabat artelanen bidez: Mark Rothko, Cy Twombly eta Andy Warhol bezalako artista estatubatuarren lanek elkarriketa sortuko dute garaikide zituzten artista europarrekin (Yves Klein, Antonio Saura, eta Jorge Oteiza eta Eduardo Chillida euskal eskultoreak, esaterako).

Gainera, Jacques Lipchitz-en Herriaren gobernu *eskulturarako lanerako maketa* (*Working model for Government of the People*) artelana izango da ikusgai. Lipchitz, XX. mendeko eskulturaren maisuetako bat, eskultura modernoaren aitzindari eta diziplina horren garapenean garrantzitsua izan zen. Bere artelana Guggenheim Bilduman sartu da oraintsu The Jacques & Yulla Lipchitz Foundation-en dohaintza eskuzabalari esker, Bildumaren eskultura-gorputza indartuz eta horren testuingurua zabalduz.

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Haunted: egungo argazkigintza-bideoa-performancea***
Komisarioak: Jennifer Blessing eta Nat Trotman
Egoitzak: Solomon R. Guggenheim Museum, New York, eta Guggenheim Bilbao Museoa
Data: 2010eko azaroaren 9tik 2011ko martxora arte
Aretoak: Bigarren solairukoak

Begirada malenkoniatsua iraganari egungo argazkigintzan, bideoan eta performancean

2010eko azaroan Guggenheim Bilbao Museoa *Haunted: egungo argazkigintza-bideoa-performancea* aurkeztuko du. Erakusketa honetan argazkigintza egungo artean nola txertatu den aztertuko da. Erabilera horrek helburu du irudiak erreproduzitzeko baliabideek duten eragina azpimarratzea, baita egun asko zabaldu den obsesio bat islatzea ere, hots, taldean nahiz bakarka iraganera heltzea.

Argazkigintza da erakusketaren ardatza, baina bertan artea sortzeko beste baliabide batzuk ere barne hartuko dira: pintura eta eskultura (argazkiak txertatuta dituztenak), bideoa, zinema, performanceak eta erakusketa gunehauetarako bereziki sortutako instalazioak. Arte garaikidean eman den argazkigintzaren, bideoaren eta performancearen bateratzea ez da ausazkoa; aitzitik, sortzaile askok artea sortzeko baliabide berriak erabiltzen dituzte maiz argazkien izaera zehazten dituzten ondorengo kontzeptuak aztertzeko: berregitea, berperformancea, berragertzea eta errepikapena.

Erakusketan iragana era desberdinean jorratzen dituzten lanak aurkeztuko dira: batzuetan, zaharkituak edo antzinakoak diruditen edo dagoeneko erabiltzen ez diren gaiak eta estilo-baliabideak erabiltzen dira; beste batzuek historiako une hunkigarriak islatzen dituzte; kasu gutxi batzuetan artelanak lehenagoko bat birsortzen du eta hala lan berriak galdutako eta urrun gelditu den jatorrizko lana atzetik duela ematen du. Horrez gain, iraganeko irudi eriberak eta irrealak diruditenak (aurriak eta paisaia apokaliptikoak, adibidez) aurkeztuko dira. Azkenik, artxibategiek talde-oroitzapenetan eta norbanakoaren obsesioetan duten zeregina azaltzen dituzten lanak ere erakutsiko dira.

Haunted: egungo argazkigintza-bideoa-performancea erakusketak aurkeztuko dituen lanen artean Solomon R. Guggenheim Foundation-en azken eskuraketak daude: Marina Abramovic, Sophie Calle, Tacita Dean, Stan Douglas, Nan Goldin, Felix Gonzalez-Torres, Andreas Gursky, Hiroshi Sugimoto eta Cindy Sherman-en lanak, besteak beste. Era berean, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan ondorengo artistek egindako lanak izango dira ikusgai: Joseph Beuys, Bernd y Hilla Becher, Robert Rauschenberg, Andy Warhol, Christian Boltanski, Annette Messager eta Gina Pane. Hauek argazkiak arte garaikidean nola txertatu diren azalduko dute eta lan berriagoen testuingurua eskainiko. Amaitzeko, erakusketan 2001. urteaz geroztik ondorengo artista gazteek sortu dituzten lanen aukeraketa bat erakutsiko da: Walead Beshty, Slater Bradley, Arme Collier, Idris Khan, Rachel Harrison eta Sara van der Beek, besteren artean.

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketing saila
TF: +34 944359008
Faxa: +34 944359059
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es